

N e m e s i e n j a i a

BOOKTEGI

Saki

itzulpena:

Ana Morales





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

SAKI

Nemesisen jaia

Itzulpena:
Ana Morales

—Eskerrak San Balendin Eguna modaz pasatu den —esan zuen Thackenbury andreak—; Gabonak eta Urte Berria eta Pazkoa direla eta ez direla, urtebetetzeak ez aipatzearren, nahikoa eta sobera egun gogoratu behar ditugu. Gabonetan saiatu nintzen arazoa gainetik kentzen nire lagun guztiei loreak bidaliz, baina ez zuen funtzionatu; Gertrudek hamaika berotegi dauzka eta hogeita hamar lorezain inguru, beraz erridikulua izango zen loreak bidaltzea, eta Millyk lore denda bat jarri berri du, hortaz, pentsatu ere ez. Gertrude eta Millyrentzako opariak presaka pentsatu beharraren estutasunak, noiz eta uste nuenean kontu horretaz hain xamurki ahaztu ahal izango nintzela, hondatu egin zizkidan Gabonak erabat. Eta gero eskerrak emateko gutunen monotonia: «Eskerrik asko lore ederrengatik. Zein jatorra, nitaz gogoratzea». Jakina, kasu gehienetan ez nintzen hartzaileez ezertarako ere gogoratu; haien izenak «ahaztu ezineko jendea»-ren zerrendan zeuden. Dena memoriaren menpe utziz gero, omisio bekatu larriak egongo ziren.

—Arazoa da —esan zion Clovisen izekoari— gogoratu behar intrusiboko egun horietan ekin eta ekin jarduten dela giza izaeraren alderdi bakar batez, bestea albo batera utzita zeharo; horregatik bihurtzen dira hain behartuak eta artifizialak. Gabonetan eta Urte Berrian konbentzioek zirikatatu eta bultzatzen gaituzte onginahi baikorrez eta morroikeriazko afektuz beteta dauden mezu koipetsuak bidaltzera nori eta bazkaltzera ere gonbidatuko ez genukeen jendeari, azken minutuan norbaitek bazkaltzeko huts egin ezean behintzat; Gabon Gauean New Yorken jatetxe batean afaltzen bazaude, zilegi da, eta horixe espero da, «Garai Zaharrengatik» abesten hastea sekula ikusi ez dituzun eta berriz ikusi nahi ez dituzun ezezagunen eskutik helduta. Baina beste norabidean, aldiz, ez dago lizentziarik.

—Beste norabidean? Ze beste norabide? —galde egin zuen Thackenbury andreak.

—Ez dago aterabiderik zure sentimenduak erakusteko sinpleki gorroto duzun jendeari. Horixe da benetan gure zibilizazio modernoa aldarrika eskatzen dabilena. Pentsa zelako bozkarioa litzatekeen egun berezi bat izendatuko balitz kontu eta arrangura zaharrak kitatzeko, egun bat zeinetan batek hauspo betean eman liezaiokeen airoski mendeku hartzeari altxor gisa jagon duen «ahaztu ezineko pertsonen» zerrenda batekoei. Gogoan dut eskola pribatuan bagenuela egun bat, uste dut hiruhilekoaren azkeneko astelehena zela, liskarrak eta arrangurak konpontzeari eskainia; jakina, ez genuen merezi bezala apreziatzen, zeren, azken buruan, edozein egunek balio baitzuen helburu horretarako. Hala ere, aste batzuk lehenago mutil

txikiago bati agiraka egin bazenion lotsabako izateagatik, egun horretan beti ahal zenion episodio hori oroitarazi berriz ere agiraka eginez. Hori da frantsesek «krimenaren urratsak berritzea» deritzotena.

—«Zigorren urratsak berritzea» deituko nioke nik —esan zuen Thackenbury andreak—; eta, edozelan ere, ez dut ikusten zelan txerta litekeen eskola mutilen mendeku sistema primitibo bat helduen bizimodu zibilizatura. Ez ditugu gure grinak gainditu, baina suposatzen da ikasi dugula dekorozorrotzaren mugen barruan edukitzen.

—Jakina, isil-ostuka eta gizabidez egin beharko litzateke —esan zuen Clovisek—; grazia izango litzateke ez litzatekeela inoiz nahitaezkoa izango, bestea bezala. Orain, esaterako, zeure buruari esaten diozu: «Esku erakutsiren bat egin beharko diet webleytarrei Gabonetan, oso jatorrak izan ziren Bertierekin Bournemouthen» eta egutegi bat bidaltzen diezu, eta Gabonen osteko hurrengo sei egunetan Webley arrak egunero galdetzen dio Webley emeari ea gogoratu den zuri eskerrak emateaz bidali zenien egutegiagatik. Ederto, orain transplantatu ideia hori zeure izatearen beste alderdi humanoago horretara, eta esan zeure buruari: «Datorren asteartean Nemesis Eguna da; zer arraio egin niezaioke alboko jende nazkagarri horri, halako iskanbila zentzugabea sortu zuten horiei Ping Yangek haginka egin zionean beren ume txikienari?» Orduan, egun seinalatuan, ikaragarri goiz jaikiko zinateke eta euren lorategira salto egingo zenuke, lorezaintzarako sarde on bat hartuta, beren tenis zelaia zulatzeko trufen bila, eta, jakina, horretarako aukeratuko zenuke ereinotzek behatze lana eragozten duten zelaiaren parte. Ez zenuke trufarik aurkituko, baina bai bake ederra, inongo opari kopuruk sekula eskuratuko ez lizukeen tamainakoa.

—Ez nuke halakorik egingo —esan zuen Thackenbury andreak, haren protestak amiñi bat behartua bazirudien ere—; zizare bat sentituko nintzateke hori eginda.

—Larresten ari zara zizare batek hain denbora mugatuan sor lezakeen nahasmendua —esan zuen Clovisek—; hamar minutuz sarde zinez on batez buru-belarri arituz gero, emaitzak pentsaraziko luke sator harrigarriki trebe baten edo azkonar presati baten lanak direla.

—Igar lezakete neu izan nintzela —esan zuen Thackenbury andreak.

—Jakina igarriko luketena —esan zuen Clovisek—; hortxe legoke graziaren erdia, Gabonetan nahi izaten duzun legetxe jendeak jakitea zein opari edo postal bidali diezun. Jakina, kontua askoz ere errazago kudeatuko litzateke itxura batean harreman ona daukazunean gogoko ez duzun izakiarekin. Agnestxo Blaik tripontzi hori, esaterako, janariaz beste ezertaz pentsatzen ez duena: oso erraza litzateke gonbidatzea piknik batera basoren bateko puntaren batean eta bazkariaren aurretixe bera galtzea; eta, aurkitzen zenuenerako, kasualitatez janari hondarrik ere ez geratzea.

—Ez dago gizaki arrunten esku bazkari bat gertu dagoenean Agnes Blaik galtzeko beharko litzatekeen estrategia: egia esan, ez dut uste halakorik egin litekeenik.

—Ba orduan gonbidatu beste batzuk, gogoko ez duzun jendea, eta gal ezazu bazkaria. Okerreko lekura bidalia izan liteke nahaste bategatik.

—Piknik negargarria izango litzateke —esan zuen Thackenbury andreak.

—Haiantzat, ez zuretzat —esan zuen Clovisek—; irten aurretik zuk bazkari goiztiar eta bizkorgarri bat hartuko zenuke, eta eguna hobetu zenezake zehatz eta mehatz zerrendatuz galdutako oturuntzaren item guztiak: otarraina Newburg erara, arrautzak maionesaz, eta labe txikian berotzekoa zen kurria. Ardoen zerrendara heldu baino askoz lehenago, Agnes Blaik eldarniotan egongo litzateke, eta bitarteko itxaronaldi luzean, bazkaria azkenean agertzeko itxaropena erabat gal zezaten baino lehen, zuk jolas tontoak egitera bultza zenitzake, adibidez «alkate jaunaren afaria»-ren jolas ergel hori, non bakoitzak janari baten izena aukeratu behar duen eta txorakeriaren bat egin janari horren izena esaten den bakoitzean. Kasu horretan ziur aski negarrez urtuko lirateke egokitu zaien janaria aipatzen zen bakoitzean. Piknik zerutarra izango litzateke.

Thackenbury andrea isilik geratu zen une batez; San Barau Eguneako piknikera gonbidatu gurako lituzkeen pertsonen zerrenda egiten bide zebilen. Azkenean galdetu zuen: —Eta gizon gorrotagarri hori, Waldo Plubley, bere burua beti mainatzen ibiltzen den hori... bururatzen zaizu hari egin lekioken zeozer? —Argi zegoen Nemesis Egunaren posibilitateak ikusten hasia zegoela.

—Jai horren ospakizuna inoiz nolabait zabaltzera helduko balitz —esan zuen Clovisek—, hain izango litzateke handia Waldo lortzeko eskaria, non asteetako aurrerapenaz erreserbatu beharko zenukeen, eta, hala ere, ekialdeko haizea balebil edo laino bat edo bi ageriko balira zeruan, agian tentu handiegiz ibiliko litzateke bere izate preziatua etxetik ateratzeko. Ze bozkarioa, kilikatuko bazenu baratzean hamaka batean etzateko, juxtu liztorrek udaro habia egiten duten tokian. Arratsalde bero batean hamaka goxo bat erakargarria izango litzateke bere gustu alfer-nagietarako, eta orduan, goxo-goxo geratzen ari zenean, habiara botatuko pospolo piztu batek liztor guztiak ateraraziko lituzke masa sumindu batean, eta laster aurkituko lukete «bigarren etxe bat» Waldoren gorputz lodian. Lan pixka bat ematen du hamaka batetik presaka irteteak.

—Hil egin lezakete eztenkadekin— protesta egin zuen Thackenbury andreak.

—Waldo da heriotzarekin ikaragarri hobetzen diren pertsona horietako bat —esan zuen Clovisek—; baina horren urrun joan nahi ez bazenu, izan zenezake eskura lasto umel apur bat, eta hamakaren azpian hari sua eman zeniezaioke pospoloa habiara botako litzatekeen une berean; keak eztenkada eremutik at edukiko lituzke liztor gehienak, militanteenak izan ezik, eta Waldo haren babesaren esparruan geratzen zen bitartean, ez luke kalte larririk izango, eta azkenean bere amari bidal lekioko bueltan, sardinzar ketu bat eginda eta handituta han eta hemen, baina, hala ere, inongo arazorik gabe ezagutzeko moduan.

—Haren ama nire etsaia bihurtuko litzateke betiko —esan zuen Thackenbury andreak.

—Postal bat gutxiago Gabonetan bidaltzeko —esan zuen Clovisek.